



HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Imp. R. Fernández J. Arana 27 IRUN

2. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

1986ko Apirila

HERRI BERTAN



1978ko Urriaren 4ean, Hondarribiko Udalan sartu berria zen Gestora Municipalak, Puntaleko poligonoa berritu behar zela erabaki zuenean, ez zekjen, agian, nolako iskanbilak sortuko ziren handik urte batzutara Puntalean egingo ziren etxeekin.

Puntaleko poligonoa, herriko Plan Generalean, etxe dotoreak, eleganteak, txaletak eta halakoak egiteko zegoen izendatua. Baina demokraziaren haize berriak etorri zirela, eta ez aberatsei bakarrik, baizik eta beharrean aurkitzen zirenei begiratu behar zitzaizela lehendabizi, eta, horrela, Gestoran sartu ziren alderdi politikotako zinegotzi edo kontzejaleak, aurreko planak eta asmoak alde batera utziz, etxe sozialak egin behar zirela pentsatu zuten.

Herrian bizi nahi

Hondarribiko problema berezi bat, izan ere, hauxe izan da, eta oraindik ere da etxe asko egin dela gure herrian, baina etxe garestiak. Nork erosi ditu etxe horiek? Dirudunek, noski. Eta horregatik, kanpotik etorri da erosle asko eta asko. Herriko semealabak, berriz, kanpora joan behar izan dute, Irunera batez ere, hango etxebizitzak merkeagoak zirelako.

Arazo honi nahi izan zioten aurpegia eman 1978ko Gestora Municipalako udalgizonek. Eta herritarren aldetik ere berehala etorri zen erantzuna: gazte talde bat bildu zen, eta beuren artean kooperatiba

bat sortu zuten, Puntaleko aldetetari helbiz. Puntalean etxe egokiak eta merkeagoak egiteko aukera ematen zuen Udalak, eta gazte hauek hantxe ikusi zuten biderik errazena herrian bertan bizitzeko. Horregatik jarri zioten izena ere "HERRI BERTAN", beuren kooperatibari. (HERRIAN BERTAN jarri bazioten, hobe esanda egongo zen).

Zortzi urte igaro dira ordu ezker, eta zortzi mila istilu ere sortu da. Herriko zati batek ongi ikusi du, eta ikusten du, egiten

ari dena. Beste zati batek ez du ongi ikusten. Non dago gakoa? Zergatik zatitu da jendea, batzuk alde eta beste batzuk aurka? Gure aldizkaria ez da bati edo hesteari arrazoi emateko, eta ez gara alde batera edo bestera jarriko. Gure egitekoa, informatzea da, eta horixe nahi dugu egin, Udako paperak irakurri eta aztertu ondoren.

Udalaren jokaera

Gakoa non dagoen galdetzen genuen, eta, gure ustez, bi dira punderik nagusiak: 1) Puntaleko lur zati haundi bat, herriarena dela, eta "HERRI BERTAN"i lur hori utzi egin dioa Udalak. 2) Udalaren lurra nahikoa izan ez, eta beste lur zati batzuk, partikularrenak izanik, partikularrei espropiatu egin zituela.

Bi puntu hauei buruz, Udalaren erabakiak jakitea da hoberena. Alde batetik, herriaren lurak ez zaizkie eman "HERRI BERTAN"i goei, baizik eta utzi egin zaie 75 urterako. Lurren jabea, beraz, Udala da orain, eta gero ere Udala izango da. Gainera, 75 urte igarotakoan, etxebizitzak ere Udalaren jabego edo propietatera pasatuko dira.

Lurak uztearen truke, "HERRI BERTAN"ek 15.000.000 pezeta ordaindu dizkio Udalari. Gainera, "HERRI BERTAN"ek bi lokal komertzial eta lokal sozial bat eraiki beharko ditu eta Udalari entregatu, Udala hiru lokal horien jaun eta jabe egingo delarik.

Gainera, Udalak berak kooperatibako kontseiluan postu bat edukiko du.

Udalak dituen eskubide hauen truke, urbanizazioko proiektua, mantenimen-

